



## **Pello Mari Otaño ikerketa beka 2020 Kilometroak Kultur Elkartea eta Mintzola Ahozko Lantegia**

### **DEIALDIAREN XEDEA**

Aiztondoko bertsoaritzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du Pello Mari Otaño ikerketa beka. Kilometroak Kultur Elkartea eta Mintzola Ahozko Lantegiak deitzen dute ikerketa beka, Zubimusu ikastola eta Hernandorena Kultur Elkarteen babesarekin.

**Aiztondoko bertsoaritzaren ikerketa eta haren dibulgazioa egitea** da deialdi honen helburua. Ikerketaren garrantziaz oharturik, hain justu, ikerlan-proiektuen kalitatea ebaluatu eta sarituko da.

Deialdi honetan, **bertsolaritza eta emakumea Aiztondon ikergaia helburu duten ikerketa proiektuak lehenetsiko dira**. Dena den, bestelako gairik duten ikerketa proiektu edo monografikoak ere onartuko dira, beti ere Aiztondoko ahozko kulturaren edo ahozko kultur sorkuntzari (antzerki, ahozko narrazio, kantu, bertso...) buruzko jakintza ikertzeko helburua baldin badute.

### **PROZEDURA**

- 3.000 euroko dirulaguntza bat esleituko da.
- Dirulaguntza jasotzeko ezinbestekoa da unibertsitate-ikasketetan titulaturia izatea 2020ko maiatza baino lehen.
- Epai-batzordea Zubimusu Ikastolako, Mintzola Ahozko Lantegiko eta Hernandorena Kultur Elkarteko kide banaz osatuko da.
- Aurkezturiko curriculumak eta ikerketa-proiektuak epai-batzordeak baloratuko ditu. Puntu gehien lortzen duen hautagaitik gutxien dituenera doan zerrenda egingo du epai-batzordeak. Beka eskuratzea merezi duten hautagaien artean puntuazio altuenak lortu duenari esleituko zaio beka. Bekari uko egin edo beka jasotzea ezinezko egingo lukeen egoerarik gertatuko balitz, zerrendako hurrengoari esleituko litzaioke beka.
- Batzordeak proiekturik aurkeztu dutenei elkarrizketa pertsonala egiteko aukera edukiko du.
- Epai-batzordeak aurkeztutako proiektuek aski kalitate ez dutela iritziko balie, bekarik ez esleitzea erabaki lezake.
- Bekaren %60 erabakia publiko egin eta 30 eguneko epean ordainduko da; gainontzeko %40a lana burututakoan gauzatuko da.
- Proiektuari dagokion ikerketa-lana 2021eko maiatzaren 9a baino lehen idatzita entregatu beharko da eta epai-batzordeak ontzat eman beharko du.



## ESKARIAK

- Ikerketa-proiektua eta beherago eskatutako agiriak Mintzola Ahozko Lantegiko zuzendaritzari bidali behar zaizkio posta arruntaz edo eskuz (Mintzola Ahozko Lantegia, Subijana Etxea, Kale Nagusia, 70. 20150 Amasa-Villabona).
- Ikerketa proiektuak deialdi honetan den eskari-orria beteta aurkeztu behar dira.
- Eskariak aurkezteko epea: 2020ko apirilaren 2ra arte.
- Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:
  - a) NAren fotokopia.
  - b) Deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia.
  - c) Eskatzailearen CVa.
  - d) Espediente akademikoaren kopia.
  - e) Ikerketa-proiektua: ezinbestean agertu behar dira helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia (1500-5000 hitz). Ikerketa-proiektua ondorengo e-postara ere bidali behar da PDF formatuan: [administrazioa@mintzola.eus](mailto:administrazioa@mintzola.eus)

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:
  - Proiektuaren helburuak eta interesa.
  - Proiektuaren ebaluzio orokorra: esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia.
  - Proiektuaren garapen-maila.
  - Proiektuaren bideragarritasuna.
  - Eskatzailearen espedientea: CVa eta espediente akademikoa.
  - Euskarazko proiektuak soilik onartuko dira.

## DATAK ETA INFORMAZIOA

- Eskariak aurkezteko epea: 2020ko apirilaren 2ra arte.
- Hautatuen izenak eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: 2020ko maiatzaren 9a, beranduenik.
- Ordainketa: %60a 2020ko ekainaren 9an beranduenik; gainontzeko %40a ikerketa-lana amaitutakoan, 2021eko maiatzaren 9an beranduenek.
- Proiektuaren arabera ikerketa-lana bukatu eta idatzita entregatzeko epea: 2021eko maiatzaren 9an beranduenik.
- Ikerketa lana egoki iruditzen zain gisan argitaratzeko zein baliatzeko eskubidea edukiko dute deialdiaren antolatzaileek.
- Zubimusu ikastolako atarian ([www.zubimusuikastola.eus](http://www.zubimusuikastola.eus)), Kilometroak jaialdiko atarian ([www.kilometroak.eus](http://www.kilometroak.eus)) eta Mintzola Fundazioaren atarian ([www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus)), argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa eta urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko gorabeherei buruzko galderak honako helbide elektronikoa honetara zuzenduko dira: [administrazioa@mintzola.eus](mailto:administrazioa@mintzola.eus)